

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	GAS-SAREAK EZARTZEKO PLANGINTZA	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF0552		
Lanbide-arloa	ENERGIA ETA URA		
Lanbide-eremua	Gasa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gas-sareen muntaketaren eta mantentze-lanen kudeaketa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Gas-sareen plangintza	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Gas-erregaiak banatzeko eta erabiltzeko sistemak	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1202_3. GAS-SAREKA EZARTZEKO PLANGINTZAN LAGUNTZEA gaitasun-ataleko LB2, LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Gas-sareak muntatzeko lan-planak lantzea, dagokion proiektuari eta ezarritako lan-prozedurei jarraikiz.

EI1.1 Obraren sekuentzia eta antolamendu orokorra ezartzea, eta prozesua optimizatzea segurtasunari, metodoari eta denborari dagokienez.

EI1.2 Beharrezkoak diren kronogramak egitea eta, kronograma horietan, fase bakoitzean beharrezkoak diren giza baliabideen premiak txertatzea.

EI1.3 Gas-sare jakin baten muntaketan esku hartzen duten pertsonen funtzioak definitzea, betiere obra zibila, hodian eta elementu osagarrien muntaketa eta martxan jartzeko lanak egiten badira.

EI1.4 Gas-sareak muntatzeko proiektuen kasu praktiko batean edo batzuetan, sare horien instalazio osagarrietan diametro desberdineko hodiak dituzten hainbat sektore eta hainbat elementu daudenean:

- Obraren sekuentzia eta faseak diseinatzea, eta, horretarako, hainbat aukera aztertzea.
- Fase bakoitzean beharrezkoak diren giza baliabideen premiak eta funtzioak ezartzea.
- Sare-proiektuen plangintzan laguntzeko programa informatikoak erabiltzea.

A2: Gas-sareetako obren zuinketa planifikatzea, birlandu beharreko obra-planoak birlantzeko.

EI2.1 Sarearen instalazioa obra-proiektura egokitzeko lanak identifikatzea eta ebaluatzea, eta hodian, balbulen, kutxatilen, kontrol-koadroen, erregulazio- eta neurketa-estazioen eta sarean eta haren instalazio osagarrietan beharrezkoak diren bestelako elementuen kokapenaren, markaketaren eta konexioaren aurreikuspena planifikatzea.

EI2.2 Zuinketa-prozesuan beharrezkoak diren eskema sinbolikoak, xehetasun-krokisak eta proiektuaren plano osagarriak egitea.

EI2.3 Obra planteatzea, eraginpean hartutako zerbitzuak eta horien garrantzia finkatzea, horrek ibilgailuen zirkulazioan, oinezkoen sarbideetan eta uraren, gasaren, elektrizitatearen eta telekomunikazioen hornikuntzaren segurtasunean dituen ondorioak zehatz-mehatz aztertzea, eta afekzioak ahalik eta txikienak izateko beharrezkoak diren neurriak kudeatzea.

EI2.4 Gas-sareak muntatzeko proiektuen kasu praktiko batean edo batzuetan, sare horien instalazio osagarrietan diametro desberdineko hodiak dituzten hainbat sektore eta hainbat elementu daudenean:

- Obra zuinkatzeko prozesua diseinatzea eta sekuentziatzea.
- Zuinketako eta markaketako prozesuan lagungarriak diren eskema sinbolikoak, xehetasun-krokisak eta plano osagarriak egitea.
- Eraginpean hartutako zerbitzuak identifikatzea.
- Eraginpean hartutako zerbitzuei dagozkien egin beharreko jardunak proposatzea.

A3: Beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko planak garatzea eta obraren hasierako dokumentazioa eta baimenak betetzea.

EI3.1 Gas-sareak muntatzeko proiektuen kasu praktiko batean edo batzuetan, hornikuntza-premiak identifikatzea, eta, horretarako, horniduren plangintza egitea, stockak kudeatzeko erabilitako sistemaren esparruan.

EI3.2 Obra egiteko baimen ofizialei lotutako dokumentazioa definitzea.

EI3.3 Baimenak lortzeko eskatutako dokumentu tekniko eta administratiboak betetzea eta izapidetzea.

Edukiak

1. Gas-sareetako obren plangintza

- Enpresa kontratista baten ezaugarriak.
- Enpresa kontratistako langileen kalifikazioa:
 - Obraburua.

- Obra-arduraduna edo langilezaina.
- Muntatzaileak.
- Soldatzaileak prestatzeko programa.
- Obra baten antolamendua.
 - Obren sailkapena.
 - Lan-metodoak.
 - Obra baten faseak.
 - Baliabideen eta materialen kudeaketa.
 - Obra baten faseak.
 - Obra-baimenen kudeaketa.

2. Gas-sareetako obren zuinketa

- Obretan erabilitako makina eta ekipamenduen azterketa.
- Dauden eraikuntzetan eta zerbitzuetan eragindako afekzioak.
- Proiektuaren trazadura izan daitezkeen aldaeren azterketa.
- Banaketarako sarearen trazaduraren landako seinaleztapena.
- Plangintza-sistemak.

3. Gas-sareetako obren hornikuntza-planak

- Gas-banaketarako sare bat ezartzeko behar diren materialen plangintza eta hornikuntza:
 - Materialak jabetzako biltegietan jasotzeko plangintza.
 - Bestelako obra-materialak erosteko plangintza.
 - Obrako garraioa eta biltegitzea.
 - Materialen itzulketa.
- Gas-obrak egiteko behar diren makinen plangintza eta hornikuntza.
- Plangintzaren kontrola. Kontrol-sistemak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gas-sareen muntaketaren eta mantentze-lanen kudeaketa.